

KIMUBERRI AISE 2014ko lehiaketako sarien banaketa

2014/06/30

KIMUBERRIren esparruan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismoko Departamentuko "Gipuzkoa, Ekiten duen Lurraldea" programaren diru laguntzarekin, KIMUBERRI-AISE lehiaketa abiatu zen Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan.

Lehiaketa irailean abiarazi zen, 2013-2014 ikasturtearen hasieran, enpresa ugariaren partaidetza izan zuten hainbat workshop eginez.

Goi Eskola Politeknikoak 2010az geroztik laguntzen du KIMUBERRI ekimenean, Debagoiena eskualdearen garatzeko estrategiarekin konprometitu dauden eragileen arteko lankidetzak publiko-pribatuko eredu batean sustatuta, eta, horiez gain, elkarte eta erakunde hauen parte hartzea ere bada: Debagoiena Mankomunitateko Garapen Agentzia, ISEA S.COOP., ATHLON S.Coop. eta SAIOLAN.

Lehiaketaren helburua izan da pertsonen eguneroko bizitza errazago bihurtuko duten produktuak et zerbitzuak diseinatzea.

Oraingo lehiaketa guztira izan diren parte hartzaileen kopurua 157 izan da, 45 proiektutan, eta, 3 fase gainditu eta gero, 36 ikasle iritsi dira finalera, 15 proiektutan banatuta.


Fase horien bitartez, proiektuen taldeek proiektuaren ideia deskribapena entregatu dute, pitching bideo bat (Mondragon Korporazioaren sare soziala den Elkarbiden argitaratu da, eta erabiltzaileek bertan proiektuak bozkatu ahal izan dituzte), eta poster bat, eta ekainaren 18an eta 19an zehar proiektuen emaitzak aurkeztu dituzte irakasleen eta enpresen aurrean, garatutako prototipoekin batera.

Goi Eskola Politeknikoak Project Based Learning (PBL) metodologiarekin egindako enpresa proiekturik onenari eman dizkiote sariak, master hauetako bakoitzean:

- Enpresa Berrikuntza eta Proiektuen Zuzendaritzako Unibertsitate Masterra
- Industria Ingeniaritzako Unibertsitate Masterra
- Sistema Txertatuetako Unibertsitate Masterra
- Produktu eta Zerbitzuen Diseinu Estrategikoko Unibertsitate Masterra

500 €-ko sariaren irabazleak izan dira:

SelfCare proiektua



Mauna Loa y SEAGA Services proiektuak



KIMUBERRI AISE 2014ko sariak



SMirror proiektua



Produktu eta Zerbitzuen Diseinu Estrategikoko Unibertsitate Masterreko proiektua

